

## **FITXA: 248 -BIZKAIA - jarduketak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, 2026ko ekitaldiaren kontura.**

<b>Nori zuzendua:</b> Bizkaiko Lurralde Historikoko 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten udalerriak eta mankomunitateak eskuratu ahal izango dituzte dekretu honetan jasotako dirulaguntzak.	
<b>Deialdia:</b> BAO - Bizkaiko Aldizkari Ofiziala	<b>Deialdiaren data:</b> 2026/06/23
<b>Sarbide-esteka:</b> <a href="https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera">https://appstac.ebizkaia.eus/eu/hasiera</a>	
<b>Erreferentziazko araudia:</b> Bizkaiko Foru Aldundiaren 61/2026 FORU DEKRETUA, ekainaren 18koa. - <a href="https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/06/23/I-712_eus.pdf">https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2026/06/23/I-712_eus.pdf</a>	
<b>Eragin eremuak:</b> Berdintasuna	
<b>Zenbatekoa:</b> 251.135,00 €	
<b>Aurkezteko lehen eguna:</b> 2026/09/01	<b>Aurkezteko azken eguna:</b> 2026/09/30
<b>Aurrerakina:</b> Ez da zehaztu	<b>Aurrerakinaren gehieneko %a:</b> Ez da zehaztu
<b>Gehieneko zenbatekoa:</b> 10.000,00 €	<b>Gutxieneko zenbatekoa:</b> 1.200,00 €
<b>Tramitazioa:</b> Norgehiagoka.	

### **Laburpena**

Foru dekretu honen bidez, erregulatu nahi dira 7.000 biztanletik beherako zuzenbidezko biztanleria duten Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriei eta mankomunitateei emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jardueretarako emango zaizkien laguntzak.

### **Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

a) Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta/edo politikorako proiektuak: partaidetza-prozesuak, emakumeen egiturak edo sareak sortzea edo indartzea, ikastaroak eta tailerrak, etab.

- b) Berdintasun-politikak zeharka txertatzeko proiektuak; bereziki, genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzen duten proiektuak.
- c) Lan-proiektuak gizon eta mutil gazteekin.
- d) Aisialdi eta jai-guneetan genero-ikuspegia txertatzeko proiektuak.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria matxistarekin lotutako proiektuak.
- f) Haurrekin egiten diren jardueretan genero-ikuspegia txertatzen duten proiektuak.
- g) Azterlanak edo diagnostikoak egitea udalerrian, desberdinkeria-egoeren gainean, batez ere, eremu sektorialetan (jaiak, kultura, kirolak, aisialdia...).
- h) Genero-ikuspegia dituzten proiektuak zainketen arloan.
- i) Udalerrian berdintasun-sektore estrategikoetan prozesu eraldatzaileak sortzen dituzten proiektuak (zainketen banaketa, landa-eremua, adineko emakumeak eta bakardadea, zahartzea, hirigintza eta joan-etorriak...)

## **Jarduera-ildoak**

Ez da zehaztu

## **Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak**

Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako proiektuaren helburuari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, ezarritako epean egiten direnak, indarrean dagoen araudiaren arabera justifikatzen direnak eta justifikatzeko epea amaitu baino lehen ordaintzen direnak.

## **Gastuetarako aldi hautagarria**

Proiektuak 2027ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra egin behar dira. Proiektuak justifikatzeko epea 2028ko urtarrilaren 31n amaituko da.